

# XEDAPEN OROKORRAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

### 1357

*31/2014 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Euskal Herriko abere-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzekoa eta animalia-arrazak sustatzeko entitateak arautzekoa.*

Nekazaritza-produkzio modernoa genetikoki hautatutako gaitasunak dituzten arrazetan oinarritzen da, ustialekuei errentagarritasuna ateratzeko nahikoa kalitate eta kantitateko produktuak lortzea ahalbidetzen badute. Hobekuntza genetikoa horretan, purutasunean hazitako eta irizpide erkideetan oinarrituta hautatutako arrazek garrantzi handiko rola betetzen dute; irizpide horiek kasuan kasuko liburu genealogikoetan definitutakoak izaten dira.

Halarik ere, abereak hobetu eta espezializatzeko jarduketak direla eta, arriskuan jarri dira arraza minoritarioak eta produkziarako gaitasun txikiagoa dutenak, edo egungo jendartearen beharrian eta eskariei gaizkien egokitzen zaienak. Animalia-arraza autoktonoak babestea 1993ko Biologia Aniztasunaren Konbentzioaren zati da. Konbentzio hori biologia-aniztasunaren alderdi guztiak – baliabide genetikoa, espezieak eta ekosistemak – batera jorratzeko lehen hitzarmen orokorra izan zen. Izan ere, hitzarmen horren bidez lehenengoz aintzatetsi zen biologia-aniztasuna babestea gizaki guztien ardura eta garapen prozesuaren zati integrala dela.

Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundea (FAO), berriz, Abeletzeko Animalien Baliabide Genetikoetarako Estrategia Globala ari da garatzen, nekazaritza eta elikagaigintzako intereseko baliabide genetikoa modu jasangarrian kontserbatu eta erabili ahal izateko.

Era berean, Europar Batasunaren esparruan, baliabideok mantentzeko oinarriak ezarri dira, arrazako animaliak eta euren material genetikoa aske merkaturatzeko legeria landu da, eta irizpideak harmonizatu egin dira hezleen elkartek aintzatesteko, liburu genealogikoetan arraza-ugaltzaileak inskribatzeko, eurak hazkuntzarako onartzeko eta etekinak kontrolatzeko eta espezien balio genetikoa ebaluatzeko moduak ezartzeko.

Gaur egun, bide beretik joateko eta egindakoa sendotzeko, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko araudia berraztertzea: bereziki, 373/2001 Dekretua, 2001eko abenduaren 26koa, Euskal Herriko bertako abere-arrazei eta arrazok sustatzea helburu duten elkarrekin buruzkoa. Eta aztertu egin behar da araudi hori data horretatik aurrerako autonomiaz gaindiko araudiari egokitzeko: bereziki, abere-arrazak kontserbatzeko, hobetzeko eta sustatzeko programa nazionala ezartzen duen abenduaren 26ko 2129/2008 Errege Dekretuari. Bertan, ekoizleen elkarten independentziari ematen zaio garrantzia, abere-arrazak hobetzeko ekintzak definitu eta betearazteko. Elkarte horiek dira, osatzen dituzten abeltzainen lanari esker, arraza bakoitzaren errealitatea ondoen ezagutzen dutenak eta, ekinaren ekinez, arrazon kontserbazioa eta hobekuntza bermatzen dutenak. Gorago esandakoak nahikoa garrantzia du lehen aipatutako dekretua indargabetu eta horren orde bestea emateko. Bertan, arraza autoktonoak kontserbatu eta hobetzeaz gain, liburu genealogikoak kudeatzen dituzten elkarten zereginak eta administrazioari dagozkion ikuskatze- eta kontrol-zereginak bereizi behar dira.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiei iritzia eskatu zaie dekretu hau egiteko garaian, bai eta sektorean esanguratsuak diren erakundeei ere.

Konstituzioaren 148.1.7 eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.9 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorruta, nekazaritzako eta abeltzaintzako eskumen guztiak auto-

nomia-erkidegoari dagozkio, ekonomiaren antolakuntza orokorraren arabera, eta hori kontuan izanda eman da dekretu hau.

Dagozkion nahitaezko txostenak eman ondoren, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2014ko martxoaren 4an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Helburuak.

Dekretu honen helburuak honako hauek dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko animalia-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko oinarritzko arauak ezarri eta abere-arraza autoktonoetako animalien gaineko araudi zooteknikoa ezartzea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako animalia-arrazak eta ekidoak kontserbatu, hobetu eta sustatzea helburu duten hezleen elkarteen funtzionamendua arautzea.

##### 2. artikulua.– Definizioak.

1.– Arrazako animalia: abeltzaintzan edo ekoizpenean interesekotzat jotako edozein arrazari dagokion animalia, baldin eta inskribatuta badago, edo ofizialki aintzatetsitako elkarte batek edo zerbitzu ofizial batek kudeatutako liburu genetikoan inskriba badaiteke, hobekuntza-programan parte hartu ahal izateko. Arraza garbiko animaliak dira arraza horretako liburu genealogikoan inskribatuta edo erregistratuta aita-amak eta aitona-amonak dituztenak.

2.– Kasta, jatorria edo barietatea: arraza jakin bateko animalia populazio itxia, baldin eta sortu bada ugaltze bakartzeari esker, arraza horretako abelburu jakin batzuekin beti, material genetiko desberdina sartu barik, bost belaunaldiz gutxienez.

3.– Ekido erregistratua: behor- edo asto-aziendako etxeko animalia, edo espezie horien nahasketaren ondoriozko animalia, baldin eta inskribatuta edo erregistratuta badago liburu genealogikoan edo bertan inskriba badaiteke, erkidegoko indarreko araudian ezarritako agiriaren bidez. Dekretu honen ondoretarako, ekido erregistratuak arrazako animaliak dira.

4.– Euskal Herriko arraza autoktonoa: jatorri ezagun urrunena Euskal Herrian duen animalia-arraza eta dekretu honen eranskinetako katalogoaren barruan dagoena. Bi kategoria bereizten dira: sustatze-arrazak, errolda eta antolakuntza direla-eta hedatzen ari direnak; eta desagertzeko arriskuan dauden arrazak, atzerakada handia jasan dutenak edo galzorian daudenak, nazioan edo nazioartean ezarritako irizpideekin bat etorrita.

5.– Sustapen-entitatea: izaera juridikoa izanik animalia-arraza bat hazi, kontserbatu, hobetu edo zabaltzera emana den erakunde, elkarte edo beste edozein ente publiko edo pribatu.

6.– Abere-arrazetako animaliak hazten dituen elkarte: abere-arrazetako animaliak dituzten abere-ustialekuen titularrek eratutako sustapen-entitatea.

7.– Bigarren mailako elkarteak: abere-arrazetako animaliak hazten dituztenen elkarteek osatzen dituzten federazio, konfederazio edo taldeak.

8.– Aintzatetsitako entitatea: arraza autoktono bateko liburu genealogikoa sortu edo eramateko baimendutako sustapen-erakundea.

9.– Genealogia-liburua: ofizialki aintzatetsitako elkarte batek edo zerbitzu ofizial batek kudeatutako edozein liburu, fitxategi, erregistro edo sistema informatiko. Bertan arraza jakin bateko animaliak inskribatu edo erregistratzen dira, aurrekoak aipatuta.

10.– Arrazaren berariazko araudia: arraza estandarra, espezie bateko animalien ezaugarri objektiboen multzoa hartzen duten xedapenak: izan ere, ezaugarrioi esker arraza berekoak direla esan daiteke eta liburu genealogikoa ezar daiteke.

11.– Hobetze-programa: arraza jakin baten hezleek eratu eta ofizialki aintzatetsita dagoen elkarte batek edo zerbitzu ofizial batek sistematizatu, diseinatu eta garatutako jarduera multzoa. Kasuan kasuko arraza kontserbatu, hobetu edota sustatzera zuzenduta daude jarduera horiek, eta bereziak dira arraza bakoitzerako: horrez gain, animalien genetikako zentro kualifikatuaren oniritzia eduki behar du programak. Arrazaren errolda, ezaugarriak eta katalogazioa kontuan izaki, programak ondokoak izan daitezke:

a) Hautespen-programa: edozein hobekuntza-programa, zeinaren helburua arraza baten, edo, hala denean, kasta, leinu edo barietate baten ugaltzaile onenak hautatzea den, helburuetan definitutako ezaugarri desiragarriak ondorengoei transmititu ahal izateko.

b) Kontserbazio-programa: edozein hobekuntza-programa, zeinaren helburua aniztasun genetikoa mantentzea den, arraza, kasta, leinu edo barietatearen kontserbazioa bermatzeko eta desager dadin saihesteko edo populazioa handitzeko.

12.– Banaka baloratu edo aztertze zentroa: edozein abeltzaintza-ustialeku, titulartasun publiko edo pribatukoa eta ofizialki baimendu edo aintzatetsitakoa, zeinak hobekuntza-programa baten barruan animalia-banakoak edo horien ondorengoak baloratzeko probak egiten dituen eta ingurumen- edo maneiatze-baldintza erkideak eta informazio-biltze homogeneoa bermatzen dituen.

13.– Etekinen kontrola: animalien produkzioak eta gaitasun funtzionalak egiaztatze eta ugaltzaileen balio genetikoa zehazteko baliozko informazioa batzeko jarduera-multzoa, ezarritako ereduaren arabera, arrazetarako ofizialki onartutako hobekuntza-programekin bat etorrira eta programok arautzeko indarreko araudia kontuan izaki.

14.– Banakako balorazio-proba: hezlea izateko hautagaia den animalia zehatz baten gaineko eragiketa-multzoa, kontrolatu beharreko aldagaien banakako neurri fenotipikoak lortu ahal izateko, kronologia zehatza kontuan izanda, adierazle genetikoa lortze aldera.

15.– Ebaluazio genetikoa: etekinak kontrolatzeko eta genealogiak erregistratzeko populazioaren gainean eginiko eragiketa-multzoa, hobekuntza-programan ezarritako helburuetarako banakako balio genetikoa lortze aldera, eta horiek zehazte aldera. Hezleen ebaluazio genetikoi esker, hezleak merezimendu genetikoen arabera sailka daitezke, ondorengo belaunaldietako ugaltzaile-rik onenak hautatu ahal izateko.

16.– Morfologiaren kalifikazioa: arraza zehatz bateko animalia bati zenbakia esleitzea. Zenbaki hori gorputz-eremuei emandako puntuazioak batuz lortzen da. Epaileek edo behar bezala kreditatutako morfologia-teknikariek edo hobekuntza-programan izendatutako bestelako profesionalek ematen dituzte puntuazioak. Puntuazioa emateko, arraza bakoitzeko liburu genealogikoaren araudi espezifikoan ezarritako arraza-ereduarekin alderatu behar da.

17.– Kalifikazio lineala: sailkapen morfologikoaren sistemaren bidez interes zooteknikoko animalien atal anatomikoak edo ezaugarriak puntuatzen dira, balio-eskala baten arabera. Balioen muturrak atal edo ezaugarri horretako muturreko balio fenotipikoak dira.

18.– Ugaltzeko zentroa: animaliak batzeko ofizialki baimendutako edozein zentro, baldin eta bere zeregina material genetikoa jaso eta lortzea bada, abeltzaintza ugaltzearen tekniketarako erabiltzeko edo germoplasma bankuak mantentzeko.

19.– Biltegi-zentroa: instalazio autonomoa edo ugaltze zentro baten menpekoa, semena, obuluak, enbrioak, bereizi gabeko zelulak edo bestelako material genetikoa mantendu eta konserbatzeko, batez ere merkaturatze aldera.

20.– Germoplasma-bankua: instalazio autonomoa edo ugaltze zentro baten menpekoa edo biltegiaren menpekoa, material genetikoa epemuga jakinik gabe biltzeko, nazioko material genetikoa kontserbatzeko. Material genetikoa arrazako liburu genealogikoan inskribatutako animaliangandik dator, eta animalia jabearen baimenaz lortu da; behar besteko ADN, kalitate nahikoa duena, lortuko da gauzatu nahi diren jarduketak bermatzeko, baita animalia hil denean ere. Erabili beharreko material biologikoa ADN bakarrik denean, ADN bankua da.

21.– Hobekuntzaren zabalkundea: populazioaren artean hobekuntza-programetan lortutako aurrerabide genetikoa hedatzeko edozein jarduera.

22.– Abere bikainen lehiaketa: arrazako animalien edozein elkarretaratze, animaliak edozein modalitatetan saltzeko, lehiaketan parte hartzeko, erakusketan parte hartzeko, edo aurrekoen konbinazioan esku hartzeko, hobekuntza hedatze aldera. Txapelketa birtual edo telematikoak egin daitezke, animaliak bertaratu gabe.

23.– Arraza baten kontrol teknika: jarduera horren bidez, eskudun aginteak zehaztutako baliabideen bitartez egiaztatuko da ofizialki aintzatetsitako elkarteek edo zerbitzu ofizial arduradunek arraza behar bezala kudeatzen duten, eta hala badagokio, elkarte horiek jasotako dirulaguntza publikoak behar bezala kudeatu eta aplikatzen diren.

24.– Animalia hobetzailea: behin hobekuntza-programaren barruan ebaluazio genetikoa eginda, egiaztatu denean animaliak kalitatean eta balio genetikoan programa horretan ezarritako atariak gainditzen dituela bertan xedatutako gutxieneko fidagarritasunarekin.

25.– Ustialeku laguntzailea: ugaltze zentroa ez den abeltzaintza-ustialekua, baldin eta arraza jakin bateko liburu genealogikoan inskribatutako animaliak hartzen baditu eta arraza horretako hobekuntza-programan parte hartzen badu.

26.– Animalien genetikaren zentro ofiziala: agintari eskudunak ofizialki aintzatetsitako animalia genetikako zentroa, unibertsitate zentroak eta administrazio publikoen menpekoak, baldin eta baliabide material eta pertsonalak eta hobekuntza genetikoen eremuan eskarmentua eta presakuntza teknika baditu.

### 3. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Hauxe da aplikazio eremua:

a) Euskal Herriko Animalia Arrazak Sustatzeko Elkartearen Erregistroan inskribatuta dauden elkarte guztiak.

b) Zeregin berberak dituzten zerbitzu ofizialak.

c) Liburuotan edo erregistrotan inskribatutako edo erregistratutako animaliak dituzten abeltzaintza-ustialekuen pertsona titularrak.

d) Euskal Herriko Animalia Arraza Autoktonoen Katalogo Ofizialeko abere-arrazetako animaliak, liburu genealogikoetan inskribatutakoak.

e) 2. artikuluan definitutako zentroak, ustialekuak eta germoplasma-bankuak.

4. artikulua.– Animalia Arrazak Sustatzeko Elkarteen Erregistroa.

1.– Animalia Arrazak Sustatzeko Elkarteen Erregistroa Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumenak dituen zuzendaritzaren menpe egongo da.

2.– Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumenak dituen zuzendaritzaren ebazpenaren bidez, erregistro horretan inskribatuko dira elkarteak, bai hazleenak eta bai bigarren mailakoak, horrela eskatzen badute eta Euskal Autonomia Erkidegoan animalia-arraza jakin bat hezi, kontserbatu, hobetu edo hedatzeko lana egiten badute. Erregistro horretan, elkarteoi buruzko gorabehera garrantzitsu guztiak jasoko dira.

3.– Erregistroan inskribatu ahal izateko, elkarteek ondokoak bete behar dituzte gutxienez:

a) Nortasun juridikoa edukitzea.

b) Irabazteko asmorik ez izatea.

c) Zereginak betetzeko behar besteko baliabide tekniko eta pertsonalak edukitzea.

d) Estatutuak edo estatutu moduan ezarritako barneko funtzionamenduko araudia izatea. Bertan funtzioak betetzeko garaian bazterkeriarik eza berariaz xedatu behar da. Era berean, bertan azaldu behar da edozein abeltzain integra datekeela nahi badu eta betekizunak betetzen baditu.

e) Ondoko dokumentazioa aurkeztea: eratze-agiria, helburua eta estatutuak, osaketa eta jarduketaren eremua.

f) Animalia-arrazak kontserbatu, hezi edo hobetzeko jarduerarekin lotuta eskatutako bestelako datuak aurkeztea.

g) Lurraldeko elkarteak badira, estatutuetako funtzioak gauzatzeko kasuan kasuko foru-aldundiaren aintzatespena.

1.– Administrazio-prozeduraren araudi erkidearen arabera aintzatetsiko dira sustapen-elkarteen gauzatuko da.

2.– Erregistroan inskribatzea ukatuko da, noiz eta elkarteak katalogoko arraza autoktonoren baten kontserbazioa arriskuan jartzen duenean, erregistratutako elkarte baten funtzionamendua eragozten duenean edo ezarritako betekizunen bat betetzen ez duenean.

3.– Dena den, urtero, elkarteak egoeraren eta jardueren memoria aurkeztu behar du. Abeltzaintza-eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak, Abere Arrazen Koordinazio Batzordearen txostena jaso eta gero, sustapen-elkarte baten inskripzioa ezezta dezake, ezarritako betekizunen bat betetzeari uzten dionean.

6. artikulua.– Abere-arrazen informazioko eta datu-baseen EAEko sistema.

1.– EAerako, internet/intranet teknologiadun informatika-aplikazioa sortuko da, eta datu-base informatizatua izango du.

2.– Datu-baseak honako datu hauek izango ditu gutxienez:

a) Abere-arraza.

b) Liburu genealogikoa eramateko baimendutako bigarren mailako elkartea, arraza autoktonoen kasuan; edo autonomia-erkidegoan arrazaren liburu genealogikoa kudeatzen duen bigarren mailako elkartea, autoktonoak ez diren arrazen kasuan.

c) Liburu genealogikoaren ataletan urtero inskribatutako anomalia-kopurua.

d) Egindako aitatasun-probak.

e) Animalien errolda sexuka, liburu genealogikoaren atal bakoitzean eta lurralde historikoko.

Autonomia-erkidego bitan dauden arrazen kasuan, bakoitzean dagoen animalia banaketa aurkeztu behar da.

1.– Abere Arrazen Koordinazio Batzordeak definituko du datu-basearen egitura, 8. artikuluan xedatu bezala.

2.– Abere-arraza autoktonoen liburu genealogikoak eramateko aintzatetsitako erakundeek eta autoktonoak ez diren arrazak autonomia-erkidegoan sustatzeko elkarteek urtero gutxienez datu base informatizatua mantentzeko behar besteko informazioa.

6. artikulua.– Animalia Genetikako Laborategien Erregistroa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Animalia Genetikako Laborategien Erregistroa sortzen da, Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumenak dituen zuzendaritzaren menpe.

2.– Geneen eta genetika-markatzaileen analisiak izaera eta balio ofizialez egingo dituzten laborategiak erregistratu egingo dira, abeltzaintzan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzaren ebazpen bidez, eta Abere Arrazen Koordinazio Batzordeak proposatuta –8. artikuluan ezarritako batzordea da–. Anlisi horiek beharrezkoak dira arraza autoktonoen genealogia-liburuetan ezarritako filiazio edo ahaidetasun-kontrola egiteko.

7. artikulua.– Abere-arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko eskumenen banaketa.

1.– Foru-aldundiak izango dira euren lurraldeetan dekretu hau aplikatzeko agintari eskudunak.

2.– Lehengo atalean xedatutakoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumenak dituen sailak ondoko erantzukizunak izango ditu:

a) Dekretu honekin lotutakoaren gaineko koordinazioa, solaskidetza eta ordezkaritza.

b) Erregistratutako elkarteen eta liburu genealogikoak eramateko aintzatetsitako erakundeen funtzionamenduaren inguruan dekretu honetan xedatutako funtzioak.

8. artikulua.– Abere-arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko koordinazioa.

1.– Abere-arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko kudeaketan eta antolamenduan eskumenak dituzten foru- eta autonomia-administrazioen arteko koordinazioa lortzeko, Abere Arrazen Koordinazio Batzordea sortzen da.

2.– Batzordearen osaera:

a) Batzordearen lehendakaria, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak izendatua, albaitaritzan lizentziaduna eta zuzendaritza horretan teknikari aritzen dena.

b) Abeltzaintzan lizentziaduna den pertsona bat, Abeltzaintza Zerbitzuko lanpostu teknikoan lan egiten duena, foru aldundi bakoitzak izendatua.

9. artikulua.– Abere Arrazen Koordinazio Batzordearen zereginak.

Abere Arrazen Koordinazio Batzordearen zereginak:

a) Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien arteko lotura-organoa da, abere-arrazak kudeatzeko eta sustatzeko, eta, hala badagokio, arrazen eta erregistratutako elkarten eta aintzatetsitako erakundeen gaineko jarduera zooteknikoen azterketa, analisi eta proposamen-organoa izateko.

b) Euskal Herriko arraza autoktonoen gaineko indarreko araudia betearazteko koordinazioa.

c) Administrazioek ezarritako laguntzak, Euskal Herriko abere-arraza autoktonoak sustatzekoak, ezagutzea.

d) Administrazioen bultzatutako abere-arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko ikerketa- eta garapen-planak ezagutzea.

e) Azterlanak egitea proposatzea eta beharrezko ikusten diren txostenak eskatzea animalia ugalketari, etnozootekniari eta teknikari buruzko erakunde zientifiko eta ordezkatzaileri.

f) Abere-arrazak kontserbatzeko, hobetzeko eta sustatzeko Koordinaziorako Nazio Batzordearen lanak ezagutzea.

g) Abere-arrazen datu basearen egitura ezartzea, dekretu honen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

h) Baimen ofizialerako eskaeren berri izatea, dekretu honen 14. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, eta Euskal Herriko arraza autoktonoen liburuak eramateko aintzatetsitako erakundeei jakinaraztea, baita aintzatespen horien amaiera espedienteak ere.

i) Administrazioek eskatutako txostenak egitea.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko arraza autoktonoen liburuak eramateko aintzatetsitako erakundeen funtzionamendu egokia bermatzeko neurriak edo jarduerak proposatzea eta horri buruz sor daitezkeen zalantzak azaldu eta argitzea.

k) Arraza autoktonoak hobetu eta hedatzeko programak ebaluatu eta berorien berri ematea, araudi espezifikoak argitaratu baino lehen. Liburu genealogikoak eramateko aintzatetsitako erakundeek ezartzen dituzte programok.

l) Liburu genealogikoak kudeatzeko lan prozedurak aztertu eta onartzea. Kasuan kasuko aintzatetsitako erakundeek definitzen dituzte prozedurok.

m) Laborategiak Animalia Genetikako Laborategien Erregistroan inskribatzeko baldintzak ezartzea eta laborategiok emandako informazioa ebaluatu eta baloratzea, eta erregistrora zeintzuk batu daitezkeen proposatu.

10. artikulua.– Euskal Herriko Animalia Arraza Autoktonoen Katalogo Ofiziala.

1.– Euskal Herriko Animalia Arraza Autoktonoen Katalogo Ofizialak, dekretu honen eranskinean agertu bezala, Euskal Herriko animalia-arraza autoktono guztiak batuko ditu, baldin eta gaur egun arrazotako animaliarik geratzen bada.

2.– Bereizita sartuko dira katalogoan abere-arraza direnak eta ez direnak.

3.– Abeltzaintza eskudun sailburuaren aginduaren bidez eguneratu ahal izango da katalogo ofizialaren edukia eta bertan dauden arrazen araudi espezifikokoak ezarri, dekretu honetan xedatu bezala.

11. artikulua.– Abere-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko EAEko programa.

Abere-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko programarekin, bere aplikazio-eremuan eta Euskal Herriko arraza autoktonoetarako, funtzio hauek betetzen dira:

a) Arraza autoktonoak, kastak, leinuak edo barietateak ezaugarritu eta sailkatzea Euskal Herriko Animalia Arraza Autoktonoen Katalogo Ofizialera batze aldera.

b) Liburu ekologikoak eramateko aintzatesitako erakundeak aintzatestea.

c) Liburu genealogikoen eta aldaketen araudi espezifikokoak onartzea.

d) Euskal Herriko arraza autoktonoak hobetu eta hedatzeko programak eta euren aldaketak onartu eta kontrolatzea.

e) Euskal Herriko arraza autoktonoen informazioko sistema nazionala garatzea.

f) Ugalketa zentroak, biltegiak, germoplasma bankuak eta enbrioak jaso eta galtzeko ekipok erregistratzea.

g) Hobekuntza hedatu eta abere txapelketak egiteko programak onartu eta kontrolatzea.

h) Abere-arrazak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko ikerketa bultzatzeko neurriak sustatzea eta lan sareak sortzea esperientziak eta ezagupenak koordinatu eta trukatzeko programa lerroetan.

i) Abere-arraza autoktonoak kontserbatzeko, hobetzeko eta sustatzeko laguntzak eta dirulaguntzak ezartzea.

12. artikulua.– Liburu genealogikoaren edukiak.

Liburu genealogikoaren araudi espezifikoaren gutxieneko edukiak ondokoak dira:

a) Arrazaren ezaugarriak zehaztea, izena, arraza-prototipoa eta sailkapen-sistema barne.

b) Hala badagokio, inskribatutako animaliak identifikatzeko erabilitako metodo espezifikokoak.

c) Liburu genealogikoa eta berori osatzen duten atalak bereiztea.

d) Animaliak liburu genealogikoan eta ataletan inskribatzeko betekizunak eta baldintzak.

e) Filiazioaren fidagarritasuna edo ahaidetasunaren kontrola bermatzeko ezarritako neurriak.

f) Beste arraza baten liburu genealogikoa sortzen denean, azaldu beharko da zein epetan inskriba daitezkeen animaliak sortze-erregistroan.

13. artikulua.– Liburu genealogikoaren banaketa.

1.– Liburu genealogikoan, atal nagusiaz gain ondoko erregistroak ere badaude:

Jaiotzen Erregistroa: arraza bakoitzerako araudi espezifikoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten sexu biko animalientzat, horretarako araudiarekin bat etorrira.



b) Behin Betiko Erregistroa: jaiotze-erregistrotik datozen animalia ugaltzaileentzat, baldin eta espezie edo arraza bakoitzerako araudi espezifikoaren baldintzak betetzen badituzte, horretarako araudiarekin bat etorrira.

Erregistro horren barruan, ugaltzaileen erregistro bat edo batzuk egon daitezke, zeinetan kasu bakoitzean eskatzen diren balorazio probak ondo gainditu dituzten animaliak inskribatuko baitira.

Horrez gain, nazioarteko araudiak berariaz debekatzen duenean, erantsitako ondoko erregistroak edo atalak sor daitezke, arraza bakoitzerako irizpide teknikoak kontuan izaki.

Erregistro Fundazionala: liburu genealogiko sortu berrientzat edo arraza gutxi erregistratuta dutenentzat. Erregistroa irekitzeko araudiz ezarritako baldintzak betetzen dituzten animaliak jasoko dituzte.

Sortze erregistro hori ezartzen denean, arraza mantendu edo berreskuratzeko beharren arabera, animaliak sartzeko zein epetan egongo den irekita ezarri beharko da, baita irekitzeko baldintzak ere, eta agintari eskudunaren idatzizko baimena eduki behar da.

Erregistro Osagarria: hor emeak sartuko dira: edo genealogia ezezagunen bat dutenak edo bere garaian erregistratu ez zirenak.

Kasu bietan, gainditu egin behar dute abere-arraza bakoitzerako ezarritako balorazio- edo kalifikazio-proba, eta frogatu egin behar dituzte –beren kasa edo beren ondorengoen bitartez– morfologia-, ekoizpen- edo funtzio-ezaugarri batzuk, betiere espezie bakoitzaren araudiaren arabera.

Era berean, erregistro osagarriaren barruan, baliteke Jaiotze Erregistro Osagarria sortzea. Bertan, ezarritako baldintzak kontuan izaki, erregistro osagarrian bertan inskribatutako animaliangandik sortutako emeak inskriba daitezke, baldin eta atal nagusiko Jaiotze Erregistroan inskribatzeko baldintzak betetzen ez badituzte.

Erregistro Osagarri hori derrigorrezkoa izango da Arraza Autoktonoen Katalogo Ofizialean «egoera larrian» edo «arriskuan» kalifikatuta dauden arraza autoktonoen kasuan.

Merituen Erregistroa: atal nagusiko animalia ugaltzaileak inskribatuko dira, baldin eta genetika, morfologia, produkzio, ugalketa edo funtzio tasun bikainak egiaztatu badituzte, arraza bakoitzeko araudi espezifikoarekin bat etorrira.

14. artikulua.– Liburu genealogikoak sortu edo eramateko erakundeentzako aintzatespena.

Dekretu honen eranskinean adierazitako abere-arrazen genealogia-liburuak sortzeko edo eramateko entitate aintzatetsiak bigarren mailako elkarteak bakarrik izan daitezke.

Elkarte horiek aintzatestea abeltzaintzaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari dagokio; horretarako, Abere Arrazen Koordinazio Batzordearen nahitaezko txostena hartuko du aintzat.

Autonomia erkidego batean edo gehiagotan banatutako arrazen kasuan, aintzatespena 2008ko abenduaren 26ko 2129/2008 Errege dekretuaren 9.1 artikuluzatian edo berori ordeztan duen arauan ezarritakoarekin bat emango da.

Aintzatetsitako erakundeek, ordezkatzan dituzten arrazen liburu genealogikoak bakarrik eraman ditzakete.

Bigarren mailako sustapen-elkarte bat liburu genealogikoa sortu edo eramateko erakunde gisa aintzatesteko, ondoko betekizunak bete behar dira:

Animalia Arrazak Sustatzeko Elkarten Erregistroan inskribatuta egotea, dekretu honen 5. artikuluan dago jasota.

Arrazaren lurralde-izaerako sustapen-elkarte bik gutxienez osatua izatea. Aintzatetsitako erakundeak osatzen duten sustapen-elkarteen artean animalien ustialekuen eta errolden banaketak ahalik eta ondoen ordezkatu behar du arrazako animaliek lurralde historikoetan duten banaketa. Orokorrean, lurralde historiko batek animalia erroldetan eta ustialeku-kopuruan duen ehunekoak ezin da izan aintzatetsitako erakundeak osatzen duten sustapen-elkarteetara batutako erroldaren edo ustialekuen % 70 baino gehiago.

Aurreko paragrafoan agertutakoa gorabehera, arrazaren banaketa-eremua lurralde bakar bat denean, eta horrelaxe agertzen bada Abere Arrazen Koordinazio Batzordearen txostenean, kasuan kasuko lurraldeko lehen mailako elkarteari baimena eman dakioke liburu genealogikoa eramateko.

Nahikoa langile prestatu izatea liburu genealogikoaren funtzioak eta hobekuntza-programa behar bezala kudeatzeko. Liburu genealogikoaren zuzendari teknikoak hobekuntza-programaren jarraipena eta koordinazioa gauzatu du; unibertsitate-titulua edukitzeaz gain, gai zooteknikoen gaineko jakinduria eta prestakuntza eduki behar ditu.

Bete beharreko funtzioei egokitutako ekipo eta material informatikoa edo mekanikoa izatea, datuak tratatzeko betez ere.

Liburu genealogikoa kudeatzeko eta hobekuntza-programa garatzeko baliabide ekonomikoak edukitzea, arrazaren erroldaren eta lurralde-banaketaren arabera.

Gaitasuna egiaztatzea, baliabide tekniko analitikoak eta laborategikoak, norberarenak edo kanpokoak, izanda, filiazio kontrol analitikoak egiteko, teknika homologatuak erabiliz.

Arraza baten liburu genealogikoa eramateko elkarte bat aintzatesteko, liburu genealogikoa eramateko dagoeneko bigarren mailako elkarte bat edo batzuk aintzatetsita badaude, 2008ko abenduaren 26ko 2129/2008 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

15. artikulua.– Liburu genealogikoak daramatzaten elkarten betebeharrak.

Liburu genealogikoak eramateko aintzatetsitako erakundeek ondoko betebeharrak bete behar dituzte gutxienez:

Arraza kontserbatu, hobetu eta sustatzeko helburuak ezartzea.

Arrazaren liburu genealogikoa mantendu eta kudeatzea, liburu genealogikoen funtzioei buruzko agiriak jaulkiz, ziurtagiriak eta gutun genealogikoak batez ere.

Arraza bakoitzerako ofizialki onartutako programa garatzea.

Arraza hobetzeko programa kudeatzeko batzordea xedatzea, arraza mantendu, sustatu eta hobetzeko programak garatu, koordinatu eta jarraitzea errazte aldera. Bertan, gutxienez, ondokoak izan behar dira partaide: genetikan kualifikatutako zentroko teknikaria, hobekuntza-plana abalatzeko, eta Arrazen Kontrol Teknikoko Batzordeak izendatutako pertsona bat.

Hala badagokio, liburu genealogikoaren araudi espezifikoa aldatzeko proposamenak eta hobekuntza eta hedapen programak aurkeztea, agintari eskudunak onar ditzan.

Eskudun agintariak eskatuta, eta urtero gutxienez, liburu genealogikoaren eta hobekuntza-programaren berri ematea. Edu bertsuan, arrazaren inguruko gorabeheren berri ematea, ondokoen

ingurukoak batez ere: errolda, nazioko eta nazioarteko hedapena, sailkapen eta hautapen probak, txapelketak eta, hala badagokio, aplikatu beharreko araudiak.

Datu-baseetarako sarrera bermatzea, eta komunikazio telematikoko tresnak ezartzeko konpromisoa hartzea, agintari eskudunak zehazten dituen eran eta baldintzetan, liburu genealogikoaren eta hobekuntza-programaren datuak eskura jartzeko, beharrezkoak baitira 5. artikuluan ezarritako datu basea eratzeko.

Arraza kontserbatu, hobetu eta sustatzeko ekintzen koherentziari eustea, arraza horren liburu genealogikoa kudeatzeko ofizialki baitago aintzatetsita, eta beharrezko tresnak ezartzea arrazaren erabilera jasangarria lortzeko.

Arrazen Kontrol Teknikoko Batzordeari liburu genealogikoa eramateko beharrezko lanak beteazteko sistema ezartzen duen lan prozedura. Lanok liburu genealogikoaren araudi espezifikoan jasotakoak dira.

Aintzatetsitako erakundeek funtzioak zehaztu behar dira prozeduran, baita elkarteek osatzen dituzten hezleen elkarteek betearaziko dituztenak ere.

#### 16. artikulua.– Hobekuntza-programak.

Liburu genealogikoak eramateko aintzatetsitako erakundeek arraza hobetzeko programak landu eta aurkeztuko dituzte, arrazon liburu genealogikoa kudeatzen badute, agintari eskudunak onar ditzan. Errolda-egoera eta garapena eta produkzio ezaugarriak kontuan izanda, kontserbazio-edo hautapen-programak izan ahal izango dira. Arraza bakoitza hobetzeko programa kudeatzen duen batzordeak landu eta kudeatuko ditu programa horiek. Batzordea 14.4 artikuluzatian definitzen da.

Galzorian dauden arraza autoktono guztiek kontserbazio-programa eduki behar dute.

Hobekuntza-programek ondoko edukiak izan behar dituzte gutxienez:

Hasierako egoeraren deskripzioa.

Hautapen- edo kontserbazio-helburuak eta -irizpideak.

Hobekuntza-programaren etapak eta kronologia.

Esne-etekinen kontrola, honako legeria kontuan izanda: 2005eko apirilaren 8ko 382/2005 Errege Dekretua –behi-, ardi- eta ahuntz-espezieen ebaluazio genetikorako esne-etekinen kontrol ofiziala arautzen duena–, eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Haragiaren etekin-kontrola eta ekidoak hautatzea, 2008ko abenduaren 26ko 2198/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Odolkidetasuna, deriba genetikoa, aldagarritasun genetikoaren galera, populazioaren galera edo produkzio-ezaugarrien galera saihesteko jarduketak.

Hobekuntza genetikoa hedatzeko eta arraza modu jasangarrian erabiltzeko aurreikuspena eta mekanismoak.

Ustiategi kolaboratzaileen lankidetzak eta integrazio-moduak eta honako hauen parte hartzea: ugalketa-zentroak, biltegiak, testatze-zentroak, germoplasma-bankuak edo enbrioak jasotzeko eta ekoizteko ekipoak; horiek programan parte hartuko dutela aurreikusten da.

Kontserbazio-programen kasuan, parte hartzea derrigorrezkoa izango da elkartekide diren abeltzain guztientzat eta liburu genealogikoan integratutako animalia guztientzat.

Animalia genetikako zentro espezializatuak abalatu behar du hobekuntza-programa.

Gutxieneko eduki horiek eta berorien osagarriak garatzeko, honako hauek gauzatu daitezke:

Ugaltzaileen –aurrekoak, ondorengoak eta zehar-ahaideak– balorazioa edo animalia ezauzgarrien balorazioa eta etekinen kontrola.

Ebaluazio genetikoa, informazio genealogikoan eta fonotipikoan oinarrituta. Emaitzak balio genetikotan adieraziko dira, dokumentazio genealogikoan eta arrazaren hazitarako animalien eta eme hobetzaileen katalogoetan, hautapen-helburuak kontuan izanda. Ebaluazioaren emaitzak argitaratzean, fidagarritasunaren gaineko datuak eta ebaluazio-data agertuko dira.

Ebaluazio genetikoko hori helburu bakoitzerako adierazle sintetiko espezifikoaren kalkuluekin osatu daiteke.

Animalien ebaluazio genetikoko aplikatutako estatistika-metodoak eta ebaluazio genetikoko zorrotasuna Europar Batasunaren araudiari eta Abereen Etekinak Egiartzatzeko Nazioarteko Batzordeak (ICAR) ezarritako printzipioei egokitu behar zaizkie.

17. artikulua.– Hobekuntza hedatzeko programak.

Arrazaren liburu genealogikoa eramateko aintzatetsitako erakunde bakoitzak arrazaren hobekuntza hedatzeko programa landu eta aurkeztuko du, agintari eskudunak onar dezan. Programak eskuragarri dauden datuak, aurreikusitako jarduketak eta honako alderdi hauek gauzatzearen arduraduna jasoko ditu:

Ustiategiarentzako aholkularitza teknikoa.

Abeltzainen prestakuntza.

Arraza, haren produktuak eta erabilerak hedatzeko argitalpenak eta programak.

Semen-dosiak banatzeko programak, ondorengoak izatearen probetarako, edo, hala badagokio, estaltze naturalerako edo ugaltzaileak lagatzeko.

Abere bikainen lehiaketak: arraza-lehiaketa, arraza-enkantea, arrazakoen edo mistoen erakusketa, 2. artikuluan definitzen diren bezala.

Azaroaren 15a baino lehen, aintzatetsitako erakundeek hurrengo urtean egin beharreko kasuan kasuko arrazaren txapelketen egutegi-proposamena aurkeztu beharko dute.

Ugaltzaile hautatuak eta material genetikoa antolatu eta saltzea.

Sustapen-planak.

18. artikulua.– Arrazaren kontrol teknikoa.

Arraza bakoitzaren kontrol teknikoa Arrazaren Kontrol Teknikorako Batzordearen bidez gauzatuko da. Batzordeak hauek eratuko dute:

Albaitari funtzionario bat, Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumenak dituen zuzendaritzaren ordezkartzan; batzordearen lehendakaria izango da.

Albaitari funtzionario bat, foru-aldundi bakoitzean animalia produkzioaren alorreko eskumena duen foru-organoaren izenean.

Erroldaren zati bat EAetik kanpo duten arrazen inguruko gaiak direnean, baina kudeaketaren kontrola autonomia-erkidego honi dagokionean, eta, 2129/2008 Errege Dekretuan ezarri bezala, gai horiek Arrazen Kontrol Teknikorako Batzordearen bidez kudeatzen direnean, arraza hori duen autonomia-erkidego bakoitzeko ordezkari batek parte hartu ahal izango du batzordean.

Batzordeak gutxienez sei hilean behin egingo du bilera.

Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumena duten organoen eta foru-aldundien baterako erabakiaren bidez, Abere Arrazen Koordinazio Batzordeak bete ahal izango ditu batzordearen funtzioak.

Arraza batzuen erroldaren banaketa Euskal Autonomia Erkidegoz gaindikoa da. Arraza horien liburu genealogikoen kudeaketaren kontrola –2129/2008 Errege Dekretuaren 9.1. artikuluz ezarritakoarekin bat etorrira– Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionean, Arrazen Kontrol Teknikorako Batzordearen kontrol-funtzioak «arraza-ikuskatzaile» baten bidez egin daitezke, eta errege dekretu horretan dago definituta ikuskatzaile hori. Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumena duen zuzendariak izendatuko du ikuskatzaile hori, Arrazen Kontrol Teknikorako Batzordeak berak proposatuta.

19. artikulua.– Arrazen Kontrol Teknikorako Batzordearen funtzioak.

Batzordearen funtzioak hauexek dira:

Arraza bakoitzerako ezarritako arauen aplikazioaren kontrol teknikoa egitea, behar bezala aplikatzen diren egiaztatuta eta liburu genealogikoaren irizpideak, etekinen kontrola eta hobekuntza betetzen diren ikuskatuz.

Hautatutako abereen txapelketetara aurkeztutako animalien betekizun zootekniko eta genealogikoak betetzen diren ikuskatzea.

Arrazaren eta liburu genealogikoa eramateko aintzatetsitako erakundearen egoeraren berri ematea. Liburu genealogikoen kudeaketari eta aztertu behar diren hobekuntza-programei buruzko jarduketak proposatzea.

Dirulaguntza publikoak behar bezala aplikatzen diren egiaztatzeko lankidetzak ematea, baita diruz lagundutako jarduketak justifikatzeko ere.

Liburu genealogikoak kudeatu eta eramateko lan prozedura onartzea.

Batzordearen beraren izenean, arraza bakoitza hobetzeko programa kudeatzeko batzordean parte hartuko duten pertsonak izendatzea.

Egoki baderitzo, batzordearen izenean, bertatik bertara kontrol-jarduerak egin behar dituen pertsona izendatzea. Pertsona hori albaitaritzan lizentziatua izango da, eta batzordea eratzeko administrazioetako edozeinetan lanpostu tekniko batean lan egin behar du.

Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumena duen zuzendariari arraza-ikuskatzaile arituko den pertsona proposatzea; EAetik kanpo ere hedatuta dauden arrazen kontrolaren arduraduna izango da.

Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumena duen zuzendariari arraza baten liburu genealogikoa kudeatuko duen organoaren osaera proposatzea, liburua eramateko aintzatetsitako erakunderik ez badago.

2014ko martxoaren 21a, ostirala

Liburua eramateko aintzatetsitako erakunderik ez duten arrazen liburu genealogikoa kudeatuko duen organoaren lan-prozedura onartzea.

Kontrol jarduera egiteko, batzordeak foru-aldundietako kasuan kasuko organoek landutako txostenak izango ditu, alegia, liburu genealogikoa eramateko aintzatetsitako erakundearen integritateko lurralde-elkarteei egindako kontrolei buruzko txostenak.

20. artikulua.– Arrazaren liburu genealogikoa eramateko aintzatespena amaitzea.

Abeltzaintza-eskumena duen sailak, behin Arrazen Kontrol Teknikorako Batzordearen txostena jasota, ondokoetako bat gutxienez gertatzen denean amaitutzat joko du liburu genealogikoa eramateko sustapen-elkarte bati emandako aintzatespena.

Elkartek aintzatespenerako dekretu honen 14. artikuluan agertutako baldintzak betetzeari uzten badio.

Elkartek behin eta berriz bete barik uzten baditu 15. artikuluan aipatutako betebeharrak.

Baldin eta, aurreko puntuan adierazitakoaren ondorioz, abere-arraza autoktono batek ez badu liburu genealogikoa eramateko aintzatetsitako erakunderik, lan hori kudeaketa-organo baten bidez egingo da. Eusko Jaurlaritzan abeltzaintza-eskumena duen zuzendariak izendatuko du organo hori, Arrazen Kontrol Teknikorako Batzordeak proposatuta.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau argitaratu baino lehen genealogia-liburua eramateko aintzatetsitako entitateek 12 hilabete izango dituzte, dekretua indarrean jartzen denetik aurrera, genealogia-liburuko berariazko araudia egokitzeko, genealogia-liburua kudeatzeko lan-prozedura aurkezteko eta arraza hobetu eta zabaltzeko programak aurkezteko.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Euskal Herriko animalia-arraza autoktonoei eta arrazok sustatzea helburu duten elkarteei buruzko abenduaren 26ko 373/2001 Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen emana, 2014ko martxoaren 4an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## 2014KO IRAILAREN 10EKO 31/2014 DEKRETUAREN ERANSKINA

EUSKAL HERRIKO ANIMALIA ARRAZA AUTOKTONOEN KATALOGO OFIZIALA  
ABERE-ARRAZAK

## BEHIAK

Betizua.....Arriskuan

Montxina.....Larri

Herriko behi gorria.....Arriskuan ez

Terreña.....Arriskuan

## ARDIAK

Karrantzako Mutur Beltza....Arriskuan

Karrantzako Mutur Gorria....Arriskuan ez

Latxa Mutur Beltza.....Arriskuan ez

Latxa Mutur Gorria.....Arriskuan ez

Sasi Ardia.....Arriskuan

## AHUNTZAK

Azpi Gorria.....Larri

## TXERRIAK

Euskal Txerria.....Larri

## BEHORRAK

Euskal Herriko mendiko behorra.....Arriskuan

Pottoka.....Arriskuan

## ASTOAK

Enkarterriko astoa.....Larri

## HEGAZTIAK

Euskal Antzara.....Larri

Euskal Oiloa, Beltza.....Larri

Euskal Oiloa, Gorria.....Larri

Euskal Oiloa, Lepasoila.....Larri

Euskal Oiloa, Marraduna.....Larri

Euskal Oiloa, Zilarra.....Larri

## ABERE-ARRAZA EZ DIRENAK

## TXAKURRAK

Erbi Txakurra.....Larri

Euskal Artzain Txakurra, Gorbeiakoa.....Arriskuan

Euskal Artzain Txakurra, Iletsua.....Arriskuan

Enkarterriko Villanoa.....Larri

Enkarterriko Villanukoa.....Larri